

XV. Lapurtarren Biltzarra igandean iraganen da Uztaritzeko karraketan

Desfilean bertako herriek urteko kezkak azalduko dituzte


Ohiturari jarraikiz, urriko lehen igandea dela eta, XV. Lapurtarren Biltzarra ospatuko da etzi Uztaritzen. Goizetik abiatuko da festa, eskualdeko herrietako orgen desfilearekin. Animazio ugari aurkeztuko dute antolatzaileek, Lapurdiko zein beste probintziako lagunak biltzeko asmoz.

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Lapurtarren Biltzarra, Lapurdiko elkarte euskaltzaleen festa eguna iraganen da etzi. Kostaldeko hamar bat herritako elkarrean elkarlanaren emaitza izango da eguna. Eguraldiaren inguruan egongo da antolatzaileen grina, kanpoan egingo baitira ekitaldi nagusiak.

Lapurtarren Biltzarra sortu zen 1979an, 'Bai euskarari' kanpainaren ondorioz. Lapurdiko herri batzuek bultzaturik, gerotik urtero ehundaka lagun biltzen dira Uztaritzeko karraketan, urriko lehen igandearekin batera. Baztandarren Biltzarra adibidez hartuta, «lehenengo festen giroa berriro hirian sartu nahi genuen eguna antolatuz» adierazi zuten antolatzaileek. Festa guzterentzat Uztaritzen hautua nabari zela gehitu zuten, «Lapurdiko hiri nagusi istorikoa baita eta herriko ordezkariak biltzen ohi ziren herri honetan». Nahiz Baiona izan Lapurdiko hiri nagusia, egunak oroitaziko du XIII. mendetik 1789ko Iraultzara arte Uztaritzen bildu zela Biltzarra, Lapurdiko herrietako ordezkarien bilera.

Ohiturari jarraikiz, orgen ibilaldiarekin hasiko da biltzarra 11etan. Traktoreek tiraturik, hamar bat orga ibiliko direla adierazi zuen Battitt Fagoagak, antolatzaileen ordezkariak. Aurreko urteetan maiz ikusi ziren kostaldeko herrien antolakuntzari buruzko salaketa edo auzapez batzuen jokabideei egin kritikak. Aurtengo gaien artean ziur aski atxiloketak, egitura politikoa herriak edo euskal gizartearen gai-



Desfilean herritarren aurtengo kezkak agertuko dituzte.

tzesten diren beste hainbat ekin-tza agertuko dira. Antolatzaileek orga dela «herrietako gogoeta eta kezken bilduma» diote. Uztaritzeko Txaranga eta Iruñeko Jaurata txarangek hartuko dute parte ibilaldian, gaitero, txistulari eta joaldunekin batean.

Eguerdiko inguruan, 'Lapurtarrak hemen biltzen ziren' harri batean jarrita daukan udaletxearen aurrean, antolatzaileen or-

dezkarri batek hitzaldi bat emango du. Garai batean auzapezak hitzaldi bat egiten bazuen ere, Udaltzaren ordezkari batek ongi etorria emango dio egunari.

Ordu batean Bilgune plazan mutxikoak emango dira eta aperitifak edango da. Aurten ere, Uztaritzeko ikastolak herri bazkaria prestatu du. Estalki pean iraganen da, Uztaritze eta Iruñeko txarangek alaiturik.

Raid Abenturaren lehendabiziko edizioa Iparraldean zeharkatzen ari da aste honetan

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Irailaren 26tik urriaren 1a arte, Euskal Herriko Raid Abenturaren lehen edizioak Iparraldea zeharkatuko du. Lau etapa egin ondoren, Itsasu eta Miarritze arteko azken etapari ekingo diote gaur 80 langabezian dauden partaideek. «Lehiaketari eta lantegiko nagusien arteko topaketa eta mintzaldiak bultzatzea» finkatu zuten helburutzat antolatzaileek. Iparraldearen ezagutzea eta kirol lehiaketak agertzen dira ekitaldiko egitarauan.

Iniziatiba ezohizko hau bultzatzea duela urte bat erabaki zuen Catherine Clerc antolatzaileak, «langabezian dauden gazteei lantegiko nagusiekin elkartzeko parada emateko». Era be-

rean, kirol lehiaketak gainditu behar dituzte partaideek, Iparraldeko itzulia egin baitute bizikletaz, kaiakez, oinez edo zaldiz. «Raiden helburua da elkartasuna, erantzukizuna eta ekimen eta elkarlanaren zentzua ematea gazteei, irabazteko nahikaria bultzatzea», azpimarratu zuten antolatzaileak.

Era berean, ingurumena eta sustrai kulturala ezagutarazte a finkatu zuten helburutzat antolatzaileak, «langile eta herritar bi-ziarentzat indar gehiago emango baitie». Zeharkatutako hiriak baloratzeko asmoa azaldu zuten, eta Europako desafioa gainditzeko prest direla.

Eguraldi txarra izan arren, Frantzia 60tik etorritako 80 partaideek joan den astelehenean

Iruñeko Euskalerrria Irratiak programazio berria aurkeztu du

IRUÑEA

Iruñeko Euskalerrria Irratiak (FM 91.4) programazio berriari helduko dio datorren astelehenera. Irratiaren seigarren irratialdia izanen da «eta hastapenetan ezarritako asmoari jarraikiz urtetik—urtera irratia zabal-tzen ari gara» irratiko programazioburua den Kike Diaz de Ultzurrunek azaldu duenez.

Iruñea eta Iruñeko euskaldunen zerbitzuan aritzea da irratia-aren helburua, «euskal-

dunen arteko tresna izatea, elkarrean berri izan dezagun. Izanez ere, Iruñean eta Iruñerrian uste baino euskaldun gehiago bizi gara, arras barreiatuak gabiltzanak, eta alde horretatik irratia elkar-gune izan nahi du».

Hastear dagoen irratialdian 24 orduetatik 6 irratia berak egindakoak izanen dira, «hortaz, Iruñerriko inguru hurbila lantzen duten irratien artean, buru izatetik hurbil gaude, eta, dudarik gabe, esparru hori hartzen duen euskarazko irratia bakarra da».

Hizkuntz eskakizuna kontuan hartu ez izana salatuko dute Lakuan

GASTEIZ

Irakasle euskaldunen beharra duten Bizkaiko Oinarriko Hezkuntza Orokorreko (OHO) ikastetxe publikoetako ordezkariak Lakuan bilduko dira gaur goizeko 10.00etan, LABek eta EILASek atzo prentsa ohar batez jakinarazi zuten. Sindikatuen informazioen arabera, auziari buruz hitz egiteko el-

karrizketa eskatuta daukate bihar goizean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean. EILAS eta LABek adierazi bezala, «ikasturtearen hasieran B eta D ereduak ikastetxe askotan, Bizkaian batez ere, ezusteko handiarekin egin dute topo: Hezkuntza Sailak ez ditu ez hizkuntz eskakizunik (HE) ezta espezialiterik ere kontuan hartu hutsik ziren lanpostuak betetzeko».

Gaztetxearen aldeko batzar irekia Donostian

DONOSTIA

Donostiako Gaztetxearen Aldeko Asanblada Irekiak deituta, gaztetxearen inguruko bilera egingo da astelehenean Gros auzoko Aita Larroka kalean, 0 zenbakian. Arratsaldeko zortzietan hasiko den bilera irekian Donostian gaztetxearen inguruan egin daitezkeen gauzak aztertuko dira.

Bilera irekia izanik, gai honetan interesa duten guztiei dei egin die Donostiako Gaztetxearen Aldeko Asanblada Irekiak.

HILDAKOAK

ARABA

■ GASTEIZ Juan Maria Peciña Cabezas, Eduardo Resines Corcuera, 67 urte. Julian Arrausi Lopez de Abetxuko, 68 urte. Teofila Herrera Mayo, 91 urte. Ignacio Garcia de Cortazar Munain. Alberto Puerta Merino, 33 urte. Santiago Eraso Perez, 59 urte.

BIZKAIA

■ BILBO Ageda Idirin Zubero. Maria Viñas Cuerva, 46 urte. Antonia Eguskiza Bilbao, 83 urte. Dolores Apodaca Manraña. Rosa Oejo Sierra, 75 urte. Maria Alonso Ayala. Santiago del Rio Ungria. Rufino Pujana Etxezarraga, 69 urte.

■ AREETA Alazne Uribe Larraudogoitia. ■ BERMEO Esteban Bilbao Torre, 80 urte. ■ BARAKALDO Constantino Rivas Blanco, 71 urte. Antonia Gonzalez Gonzalez, 88 urte. Eduardo Cilla Martinez, 34 urte.

■ DURANGO Basilio Arana Irazola, 77 urte.

GIUZKOA

■ DONOSTIA Francisca Auzmendi Peña, 73 urte. Rafael Zubia Gomez, 73 urte. Maria Teresa Amunarriz Olano, 65 urte. ■ ATAUN Maria Goikoetxea Imaz, 94 urte. ■ BEASAIN Josefa Aranburu Nazabal, 89 urte. ■ BERGARA Rosario Azkargorta Kortabarría, 95 urte. ■ IRUN Cristobal Rubio Corral, 69 urte. ■ TOLOSA Francisco Fernandez Ayerra, 82 urte. ■ USURBIL Jose Francisco Iraola Martikorena, 98 urte. ■ ZARAUZ Lorenza Otxagabia Mercero.

LAPURDI

■ BAIONA Pierre Elissalde, 82 urte. Renee Gout.

■ DONIBANE LOHIZUNE Louis Pikabea, 78 urte.

■ HAZPARNE Jeanne Larcebeau, 90 urte. Bernard Le Pelletier, 71 urte.

■ KANBO MAdeleine Camont, 82 urte.

■ MIARRITZE Odette Thouand, 85 urte. Elisabeth

NAFARROA

■ IRUÑEA Manuela Ibarrola Oneca, 78 urte. Pio Olleta Adot, 86 urte. Dimas Flamarique Sorbet, 77 urte. Gregorio Pedrosa Ibañez, 76 urte. Salvador Mayayo Labiano, 77 urte. Gregorio Garrido Cerezo, 92 urte. Cecilio Diago Etxeberria, 73 urte.

■ ALTSASU Pedro Garcia Garrancho, 60 urte.

■ ESPRONTZEDA Jesus Ortigosa Alvarez, 68 urte.

■ NOAIN Andrea Vazquez Armendariz, 10 hilabete.

ESKELAK

ESKELAK HARTZEN DIRA:
ARRATSALDEKO

4ak arte: (943) 46 90 22

4etatik 7etara: (943) 37 15 45